

Su Ta Gar, Noiz Arte

Gorrotoa eutsiaz
Igarotzen dut
Egun guztia
Jasan behar
Dudalarik
Beraien
Eguneroko egia
Indarra eurak dute
Legeak jostailu
Paregabea
Argia eta garbia
Barruan duten
Ustelkeria

Noiz arte
Noiz arte
Noiz arte
Noiz arte

Zapaldu
Egin nahi naute
Beraien esanetara
Makurtzen
Ez dute
Erraz lortuko
Lehenago
Bortxatu beharko naute
Nahiz eta
Asko egon
Dutenak guzti honetan
Sinisten
Konturako dira
Ziria ondo sartu dietela

Egia da
Hemen gertatzen dena
Gutxi batzuk
Ulertzen dutela
Egia da
Dioten guztira
Kutsaturik dagoela